



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

EUSKARA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, 2016KOA.

2016ko ekainaren 24ko Alkatetzaren 146/2016 Dekretu bidez erabaki zen euskara arloan 2016an emango diren diru-laguntzen oinarriak onartzea eta deialdia egitea. Ondoren, oinarriak eta deialdia argitaratu dira jendeak jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Legorretako Udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak.

- Oinarrien xedea:

Oinarri hauen xedea da Legorretako Udalak Euskararen arloan kudeatzen dituen hainbat programaren bidez ematen diren diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea. Diru-laguntza horiek ondoren zehazten direnak izango dira.

— Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egiteko diru-laguntzak.

Diru-laguntza honen oinarriak I eranskinaren bitartez arautzen dira, hurrenez hurren.



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

I. ERANSKINA

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egiteko herritarrei diru-laguntzak ematea.

1. artikulua. Xedea.

Deialdi honen xedea da 2015-16ko ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa bukatu duten Legorretako herritarrentzako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua. Jasotzaileak.

Legorretako udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoek eska ditzakete oinarri hauen bidez arautzen diren diru-laguntzak.

3. artikulua. Onuradunek bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntzak jasotzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Legorretan erroldaturik egotea.
- Ikastaroak euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izan behar du.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.
- Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailakoa nahiz nazioartekoa) diru-laguntzarik ez jasotzea; eta halakorik jaso bada, organo emaileari jakinaraztea.
- Emakidaren ebazpena idatzi baino lehen, zerga ordainkizunetan eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean dagoela egiaztatzea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide ereduarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- a) Nortasun Agiriaren fotokopia.
- b) Aisialdi eskolak eginiko ziurtagiria, non egiaztatuko den: eskatzaileak ikastaroa gauzatu duela eta alderdi teorikoa gainditu duela; ordaindutako matrikularen zenbatekoa; ikastaroaren homologazioa eta zein hizkuntzatan egin den ikastaroa.

Araututako epearen barruan titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio Udalari jasotako diru-laguntza.



LEGORRETAKO UDALA (GIPUZKOA)

* Erroldatze-agiria eta Udalarekin zorrik ez izanaren agiria ez da aurkeztu behar izango. Udal administrazioak bere gain hartzen ditu horiek egiaztatzeko egin beharreko gestioak.

5. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Urtero, aurreko urteko irailaren 1a eta urte horretako abuztuaren 31 bitartean hasi eta bukatutako ikastaroak lagunduko dira.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

Eskaerak aurrez aurre aurkez daitezke Udal Bulegoan (Kale Nagusia, 12), 09:00etatik 13:00era bitartean, edota Internet bidez www.legorreta.eus webguneko zerbitzu telematikoen bidez.

6. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontua.

Hauek izango dira banatuko diren diru-laguntzak:

- Begirale ikastaroa: matrikularen %30a, gehienez ere 150 euro.
- Zuzendari ikastaroa: matrikularen %30a, gehienez ere 150 euro.

Programa honetara bideratutako diru-laguntzen zenbatekoa gehienez 1.500,00 € da eta 1.0000.480.01.335.00.2016 diru-partidatik bideratuko da.

Eskaera guztiak jaso ondoren, eskatzaileei dagokien diru-laguntzaren %100 ordainduta horretara iristeko adinako krediturik ez balego, dagoen diru-kopurua proportzionalki banatuko da.

7. artikulua. Prozedura eta diru-laguntza ordaintzea.

1. Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.
2. Udal teknikariek, eskariak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamen bat egingo dute.
3. Jarraian, ebazpen proposamena interesatuari jakinaraziko zaio, eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.
4. Ondoren, Alkateak ebatziko du. Ebazpena eta zerrendak www.legorreta.eus webgunean argitaratuko dira.

Ikastaroa amaituta, diru-laguntzen behin betiko ebazpena emanda, diru-laguntza ordainketa bakarrean kitatuko da banku transferentzia bidez. Betiere, ez badu ikastaro beragatik diru-laguntzarik jasotzen beste erakunde batetik.

Hori guztia argitaratzen da Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako.



LEGORRETA UDALA
(GIPUZKOA)

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Horrez gain, agindu horretan adierazitakoari jarraiki, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik berraztertzeko errekurtsoa jartzeko eskubidea izango dute doakienek nahi izanez gero, Udalbatzarrean, aipatutako erabakiak eta ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita hilabeteko epean.

Legorretan, 2016ko ekainaren 23an

Alkatea,

Sin.: Zelai Amenabarro Goikoetxea

